



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK EZ DABE ONARTU BIZKAIKO EGOITZEN IKERKETA “OROKORRA” EGITEA

- **Bizkaiko Batzarrek atzera bota dabe Elkarrekin Bizkaiaren arauz besteko proposamen bat, egoitzen kudeaketan egindako ardurabakokeriengaitik erantzukizunak argitzeko.**
- **Foru Gobernua babesten daben Batzarretako Taldeek –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– uste dabe Aldundiak egunero kontroletan dauela adinekoen 154 egoitzen egoerea, bere ikuskaritza-zerbitzuen bidez.**
- **Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu bigarren olatuko agerraldirik gogorrenetako bat izan eban Muskizko Marcelo Gangoitik egoitzako kudeatzaileari kontratua bertan behera izteko eskatzea.**

(Bilbon, 2021eko otsailaren 19an). Bizkaiko Batzar Nagusiek atzera bota dabe urtarrilaren 25ean, covid-19ak eragindako hirugarren olatuaren une “gorenean”, aurkeztutako Elkarrekin Bizkaiaren proposamen bat, Aldundiak Bizkaiko adinekoentzako egoitza-sarearen egungo egoeraren ikerketa “orokorra” egin eian, “osasuneko araudia eta protokoloaren ez beteteak identifiketako, eta ardurabakokeriarik egon ezkeru erantzukizunak argitzeko”. Ekimenak EH Bilduren eta Talde Berezia-PPBren babesa izan dau, eta Batzarretan gehiengo daukien Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako ordezkarien kontrako botoa jaso dau.

Egoitza batzuen kudeaketaren kalidatea “zalantzan” geratu da, “aurreikuspen faltagaitik, axolagabekeriagaitik edo ezintasun materialagaitik”, talde moreko Hector Fernandezek esanetan. Pandemiaren ondorioetarako hain kalteberak diran leku horreetan “kontrol bako” egoerea gertatzeko arriskua dagonez, Bizkaiko adinekoentzako egoitza-sarearen “preminazko diagnostiko bat egitea beharrezkotzat jotzen dogu”, gertatzen ari diran “akatsak” eta “ez-beteteak” dimentsionetako. “Autortzen dogu ikuskapenek, pedagogiari jagokonez, ondo funtzionetan dabela, baina zentro batzuk behin baino gehiagotan bisitau behar dira araudia bete daien”, “gitxienak diran” arren, ohartu arazo dau. “Egoitza berak izan daitekezala sumatzen dogu”, esan dau, alderdiak batutako datuetan oinarrituta.

Ekimenak Foru Gobernua babesten daben Batzarretako taldeen ezezkoagaz egin dau topo, izan be, ez dabe beharrezko ikusten lurraldeko egoitza guztien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ikerketa globala egitea, “egunero” egiten ari dan lana dalako. Celia Gomez jeltzaleak uste dau Aldundiak badaukala Ikuskaritza zerbitzua, eta zerbitzu horrek egiten dauen jarraipena “etenbakoa” dala, araudia beteten dan egiaztetako eta zerbitzuaren kalidadea bermatzeko. Zentzu horretan, pandemia hasi zanetik egin diran “365 ikuskapenak, 1.419 bisita, 1.500 dei eta 530 elkarrizketa indibidual” aitatu ditu Gomezek, “jagokezan txostenakaz eta aktakaz”. “Beharrezkoa ez dan alarrik ez sortzea eta balizko irregulartasunak ez orokortzea” eskatu deutse oposizino taldeei.

Ildo horretan, Ana Berta Campo sozialistak uste dau ez dala beharrezkoa “gizarte zerbitzuetan estres gehiago sortzea”, eta Gizarte Ekintza Sailak, espedienteak zabalduz, zigorrak jarritz eta Fiskaltzari jakinarazpenak edegiz egin dauen lana defendidu dau, baina, oraingoz, Ministerio Publikoak ez dauka “kasurik edegita”, Gomezen berbetan. Aldundiak egoitzetako senideei egindako azken galdeketea mahai gainean jarri dau jeltzaleak. Egoitzetako arretaren balorazioa “8,06koa” izan da, eta Aldundiaren kudeaketarena “oso ondo altua”.

Alderdi morearen ekimenak oposizino beste talde bien babesa jaso dau. Zuzenketa-eske baten bitartez, PPK ikerketea “hilebete batean” osatzea proponidu dau, Aldundiak egin dituan beste txosten batzuen epeak laburtzeko. Abenduan aurkeztutakoa berandu iritsi zan, EH Bilduren eretziz, baina “egoitzei arlo publikotik laguntzea, jarraipena egitea eta laguntzea” proponiduten eban, Izaskun Duquek esan dauenez, eta hori arauz besteko proposamen honen ildotik doa. Ganera, pandemia honetan “egoitza bakotxean batez beste ikuskapen bi egitea” balantze “eskasa” dala kritikau dau.

Gizarte Ekintzako batzordean Elkarrekin Bizkaiaren arauz besteko beste proposamen bat eztabaidatu da, Aldundiak Muskizko Marcelo Gangoiti egoitzea eta eguneko zentroa kudeatzeaz arduratzen dan Urbi Hiru ABEEagaz daukan kontratua bertan behera itzi daian, bigarren olatuaren agerraldirik “ikaragarrietako” bat jasan ebalako. Hector Fernandez berbetan, 97 egoiliarretatik “88” kutsatu ziran, eta hori oso datu “garrantzitsua” da. “Frogauta geratu da kudeatzaileek ez daukiela kutsatzeari eusteko eta Ikuskaritzaren gomendioak jarraitzeko gaitasunik”. “Zer gertatu behar da Aldundiak kontratu bat birplanteetako?”, galdetu dau.

Foru Gobernua babesten daben taldeek Foru Aldundiaren eta, batez be, bere ikuskaritza zerbitzuen lanean konfiantzea erakutsi dabe. Foru Aldundiak kasu honetan “aurrekaririk bako” hedapena egin dauela azpimarratu ostean, Celia Gomez jeltzaleak “gurata edo zabarkeriaz egindako ez-beteteak” gertatu dirala erakusten daben “zantzurik edo frogarik” ez dagola esan dau, alderdi moreak defendidu dauen moduan. “Egiazkoak badira, ekimen honetatik harago jardun behar dozue”, iradoki deutso alderdi moreko ordezkariari, baina “guk dakigunez Fiskaltzak ez dau jardun”. Azkenean, proposamena atzera bota dabe, kontrako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

10 botogaz (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia) eta aldeko 5 botogaz (Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu).

GALLARTAKO EGOITZAKO LANTALDEA

Bizkaiko Batzarrek atzera bota dabe, baita, Talde Berezia-PP Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat, Aldundiari Gallartako egoitzan “24 orduko erizaintzako eta fisioterapiako zerbitzuekin” jarraitzeko eskatzeko, adinekoek erabiltzaile moduan jarraitzen daben bitartean, gitxienez; izan be, zentro hori urritasunen bat daukien personak artatzeko zentro bihurtuko da.

Elkarrekin Bizkaiaren babesa izan dauen proposamena atzera bota dabe euzko abertzaleak eta euskal sozialistak taldeek, eta proposamena egin dauen taldeak onartu ez dauen zuzenketa-eske baten bitartez argi itzi dabe “erizaintza-zerbitzua modu egokian dimentsionetaren alde” dagozala, “adineko erabiltzaileen kopuruak eta hareen laguntza-beharrek halan eskatzen daben bitartean”, azaldu dau Asier Lopez de la Fuente jeltzaleak. Abstenidu egin dan EH Bildurentzat, horrek behargin kopurua murriztea ekarri daike, adineko egoiliarak desagertu ahala.

TXERTAKETA PROZESUA OROZKON

Azkenik, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak azaldu dauenez, bere sailak ez dau erantzukizunik Osakidetzak Aldundiaren esku dagozan egoitzetako beharginei egindako txertaketa prozesuan. “Gure ekarpen bakarra egoitzaren izena emotea izan da”, esan dau. Holan erantzun deutse Elkarrekin Bizkaiak eta EH Bilduk egindako ahozko erantzun-eskeei. Erantzun-eske horreetan azalpenak eskatu deutesiez, ESK sindikatuak salatu dauenez, Jesús María de Orozko (Grupo Norte) urritasun-zentroko arduradun bati modu irregularrean jarri eutsielako txertoa. Talde biek Foru Aldundiak egoitza horretako kudeatzaileen aurrean egoerea “argitu” daiala eta neurriak har daizala eskatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RECHAZAN QUE SE HAGA UNA INVESTIGACIÓN “GENERAL” DE LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA

- **La Cámara vizcaína rechaza una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para depurar responsabilidades por negligencias en la gestión de los centros residenciales.**
- **Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral –Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- creen que la Diputación mantiene un control diario de la situación de los 154 centros de mayores a través de sus servicios de Inspección.**
- **La Cámara vizcaína se niega también a pedir la rescisión del contrato a la gestora de la residencia Marcelo Gangoití de Muskiz que sufrió uno de los brotes más fuertes de la segunda ola.**

(Bilbao, a 19 de febrero de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado hoy una proposición de Elkarrekin Bizkaia presentada el 25 de enero, en un momento “álgido” de la tercera ola del covid-19, para que la Diputación realizase una investigación “general” del estado actual de la red de residencias para personas mayores de Bizkaia con el propósito de “identificar incumplimientos de normativa y protocolos sanitarios, así como para depurar responsabilidades en caso de existir negligencias”. La iniciativa ha contado con el apoyo de EH Bildu y del grupo Mixto-PPB y ha decaído por el voto contrario de los representantes de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que suman mayoría en la Cámara.

La calidad de la gestión de algunas residencias “ha quedado en entredicho”, ya sea “por falta de previsión, descuidos o incapacidad material”, ha mantenido Héctor Fernández de la formación morada. Ante el riesgo de una situación de “descontrol” en estos lugares tan vulnerables a los efectos de la pandemia, “juzgamos necesario realizar un diagnóstico de urgencia” de la red residencial para mayores de Bizkaia, que trate de dimensionar los “errores” e “incumplimientos” que se estén dando. “Reconocemos que las inspecciones en términos pedagógicos funcionan, pero hay centros díscolos que hay que visitar en varias ocasiones para que cumplan la normativa”, aunque “son los menos”, ha advertido. “Sospechamos que pueden ser los mismos”, en base a los datos recabados por esta formación.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La iniciativa se ha topado con el no de los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral, que no ven necesaria una investigación global de todas las residencias del territorio, ya que es una labor que se está haciendo “día a día”. La jeltzale Celia Gómez cree que la Diputación cuenta con un servicio de Inspección que realiza un seguimiento “continuo” para comprobar si se cumple la normativa y para garantizar la calidad del servicio. Gómez se ha referido, en este sentido, “a las 365 inspecciones, 1.419 visitas, 1.500 llamadas y 530 entrevistas individuales” que se han hecho desde el inicio de la pandemia “con sus correspondientes informes y actas”. Ha pedido a los grupos de la oposición el no generar “alarmas innecesarias ni generalizar posibles irregularidades”.

En este mismo sentido, la socialista Ana Berta Campo ve que “no es necesario generar más estrés en los servicios sociales”, y ha defendido la labor del departamento de Acción Social mediante la apertura de expedientes, sanciones y comunicaciones a la Fiscalía, sin que, por el momento, el ministerio público tenga “ningún caso abierto”, según Gómez. La jeltzale ha puesto sobre la mesa el último sondeo de la Diputación a familiares de los centros. Estos valoran con un “8,06” la atención de las residencias y con un “notable alto” la gestión de la Diputación.

La iniciativa de la formación morada ha contado con el apoyo de los otros dos grupos de la oposición. A través de una enmienda, el grupo Mixto-PPB ha planteado que se completara dicha investigación en “un mes” con el propósito de acortar los plazos de otros informes que ha hecho la Diputación. El presentado en diciembre llegó tarde, según EH Bildu, si bien puso sobre la mesa entre sus conclusiones que sugería “un acompañamiento, seguimiento y apoyo a las residencias desde lo público”, según Izaskun Duque, algo que va en la línea de la proposición no de norma. Además ha criticado que el número de inspecciones “dos de media en cada residencia” en esta pandemia, es un balance “escaso”.

En la comisión de Acción Social se ha debatido otra proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para que la Diputación rescindiera el contrato a la UTE Urbi Hiru encargada de gestionar la residencia y centro de día Marcelo Gangoiti de Muskiz, que sufrió uno de los brotes “más impresionantes” de la segunda ola. Según Héctor Fernández, en este “relevante” caso, en el que se infectaron “88 residentes” de un total de 97, “ha quedado demostrado la incapacidad de los gestores” para contener el contagio y para seguir las recomendaciones de la Inspección. “¿Qué tiene que pasar para que la Diputación se replantee un contrato?”, ha preguntado.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral han vuelto a confiar en la labor de la Diputación y, en especial de sus servicios de inspección. Tras destacar que la institución foral ha hecho un despliegue “sin precedentes” en este caso , la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

jeltzale Celia Gómez se ha referido a la inexistencia de “indicios o pruebas” que demuestren que se han producido “incumplimientos deliberados o negligentes”, como ha defendido la formación morada. “Si son ciertas, actúen en consecuencia más allá de esta iniciativa”, le ha sugerido al representante de la formación morada, si bien “a nosotros no nos consta que la Fiscalía haya actuado”. La proposición ha sido desestimada finalmente por 10 votos en contra (Nacionalistas Vascos, Socialistas vascos y grupo Mixto) y 5 a favor (Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu).

PLANTILLA DEL CENTRO DE GALLARTA

La Cámara vizcaína ha desestimado también una proposición no de norma del grupo Mixto-PP Bizkaia para instar a la Diputación a que mantuviera “los servicios de enfermería 24 horas y fisioterapia” en el centro residencial de Gallarta, al menos, mientras se mantengan personas mayores como usuarios, ya que dicho centro se convertirá en un centro para atender a personas con discapacidad.

La propuesta, que ha contado con el apoyo de Elkarrekin Bizkaia, ha sido rechazada por Nacionalistas vascos y Socialistas vascos, quienes han dejado claro a través de una enmienda, no aceptada por el grupo proponente, que abogan por un “dimensionamiento suficiente del servicio de enfermería, reforzándolo mientras el número de personas usuarias mayores y sus necesidades asistenciales así lo requieran”, ha explicado el jeltzale Asier López de la Fuente. Un dimensionamiento que para EH Bildu, que se ha abstenido, puede suponer un “recorte” de plantilla según vayan desapareciendo los residentes mayores.

PROCESO DE VACUNACIÓN EN OROZKO

Por último, el diputado foral de Acción Social, Sergio Murrillo ha explicado que su departamento carece de responsabilidad en el proceso de vacunación efectuada por Osakidetza a los trabajadores de los centros residenciales dependientes de la Diputación. “Nuestra única aportación ha sido dar el nombre de la residencia”, ha dicho. Así ha respondido a preguntas orales de Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu que le pedían aclaraciones por que, según ha denunciado el sindicato ESK, un responsable del centro de discapacidad Jesús María de Orozko (Grupo Norte) habría sido vacunado irregularmente. Ambos grupos han pedido que la institución foral “aclare” la situación ante los gestores de dicho centro y “adopte” medidas.